



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-05-27**

VII.URTEA 1.712.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eskualdeko ekintzaile ugari hartu zuten parte herenegun Ildiaker jauregian izandako ekitaldian. I.TERRADILLOS

IAZKO EKINTZAILEEN LANA GORAIPATUZ

TOLOSA 2008an 36 proiektu jarri zituzten martxan eskualdean, Tolosaldea Garatzenen autoenplegu zerbitzuaren laguntzarekin 2

**Gipuzkoako Foru
Aldundiaren
I. Erremonte
Kopan ariko dira
eskualdeko hiru
erremontista 2**

**Cuerdoren ikus-
entzunezkoak
itxi ditu
'Munduan
zehar bidaiatuz'
jardunaldiak 6**

**Hileko azken
ostiralero bezala
elkarretaratzeak
egingo ditu
Etxerateg, «Jon
Anza gogoan» 7**

Harri Jaiak Kultur Asteburuari emango dio lekukoa

BEDAIO Etzi hasi eta igandera arte egingo dute; tartean, irrati saioak, ibilaldiak, ... egingo dituzte 3



205.000 euroko aurrekontua du proiektuak. I.GARCIA

Kulturunean musika eskola egokituko dute

IRURA Madrildik jasotako diruarekin egingo dute eskola; lanek 5 hilabete inguru iraungo dute 4

**Formamos personas, Creamos profesionales
Pertsonak hezitzen, Profesionalak lantzen**

Concurso de acceso a ciclos superiores (A-D) (Mañana-Tardes)

CS Química ambiental (A-D)

Electricidad (A-D-A)

CS Instalaciones eléctricas y automatizadas

CS Sistemas de regulación y control automatizados

Madera y mueble

CS Fabricación industrial de carpintería y mueble (A-D)

CS Fitor: a madera de uso de lujo y mueble (A-D)(A-T)

CS Desarrollo de productos de carpintería y mueble (A)

Sanidad (D-A)

CS Higiene bucal dental

GZ Investigaci3n social (A-D)

Electrotécnicos (A-D-A)

EZ Instalaci3n eléctrica y automatizaci3n

GZ Regulaci3n y control automatizado de sistemas

Figura eta alfarero

EZ Antzerkiazko eta alfareriazko teknika irakurtzea (A-D)

EZ Antzerkiazko eta alfareriazko teknika irakurtzea fabrikazioa eta instalazioa (A-D)(A)

GZ Antzerkiazko eta alfareriazko teknika irakurtzea garapena (A)

Oxasuna (D-A)

GZ Aho eta hortzen higaketa

CS Desarrollo y aplicaci3n de proyectos de construcci3n

Estaluntza eta obra alfer (A-D)

GZ Enakuntzako proiektuen garapena eta aplikazioa

CS Desarrollo de proyectos mecánicos (A)

CS Programaci3n de la producci3n en FM (A-D)

CS Mecanizado (A-D)

CS Joyería (A)

CS Preparaci3n de negocios profesionales (A-D)

Actividades f3sico-deportivas

CS Coordinaci3n de atletismo en el medio natural (A-D)

CS Animaci3n de actividades f3sicas y deportivas (A-D)

Servicios socioculturales y a la comunidad

CS Atenci3n socio-sanitaria (A-D-A)

CS Educaci3n infantil (D-A) (A-T)

CS Desarrollo de proyectos socioculturales

EZ Aterata soziokulturaria (A-D-A)

GZ Heur hezikuntza (D-A) (A-T)

Fabricaci3n mecánica

GZ Proiektu mekanikoen garapena (A)

GZ Produktibaren programazioa fabrikazio mekanikaren (A-D)

EZ Mekanizazioa (A-D)

EZ Bitxilgintza (A)

GZ Lantze arretan parte hartzea (A-D)

Osapuz eta hiru alferiak

EZ Lantze inguruetako giza gaitzak (A-D)

GZ Osapuz eta hiru alferiak arretan (A-D)



Palacio de Euzkadi 1 - 48011 Gernika
Tfn: 945 10 01 21 - FAX: 945 11 31 22
www.easo.es

Logo of the Basque Government and other partners.

Legenda - Legend
 CM - Ciclo medio
 EZ - Ez irakurtzen ez bada
 CS - Ciclo superior
 GZ - Gai praktiko irakurri
 A - Ciclo general bakoaren modurik A
 A-T - Mota bereko bako
 G-A - Gaitze - Antzerkiazko

36 ekintzaile gehiago izan dira 2008an

Ekonomia » Autoenplegu zerbitzuaren laguntzarekin 51 lanpostu berri sortu ziren iaz; Tolosaldea Garatzenek kudeatzen du.

INIGO TERRADILLOS

36 proiektu jarri ziren eskualdean martxan 2008an Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziaren autoenplegu zerbitzuaren laguntzarekin. Ondorioz, enpresa horienagatik, 51 lanpostu berri sortu ziren iaz. Herenegun eman zituzten datu horiek ezagutzera, Tolosaldeko Ekintzailearen 3. Egunean, hain zuzen ere. Ekitaldian, pasa den urtearen balantzea egiteaz gain, errekonozimendua ere egin zieten enpresak sortu dituzten guztiei.

Enplegua sortzea helburu duen Tolosaldea Garatzenek eskaintzen duen autoenplegu zerbitzuaren eskutik, «proiektu bat aurkezten duen ekintzaileari hori aurrera eramateko behar duen laguntza guztia ematen zaio, tutoretza pertsonalizatuaren bidez; negozio plana egiten da, abian jartzeko finantzaketa bilatzera jotzen da, enpresariari gaitasunak ematen zaizkio...». Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoarekin gauzatzen da ekimena.



Ekintzaile ugari bertaratu ziren herenegun, ldiak ez jauregira. I.T.

43 proiekturen azterketa

Iaz 43 proiektu aztertu zituen zerbitzuak, eta horietatik 36 jarri dituzte abian. Proiektu horiek guztiak martxan jartzeko 2.162.526 euroko inbertsioa egin dute, batez beste, 60.070 euro proiektu bakoitzeko. Hala, inbertsio horri esker, 51 lanpostu berri sortu dira.

Sortutako enpresa horien gehiengo zerbitzu sektorekoa da, txikizkako merkataritza kokatzen da ondoren, eta ostalaritza sektorekoak gero. Gehiengo enpresari bakarrak dira, 29, hain zuzen. Zer-

bitzu honek 225 lagun artatu zituen pasa den urtean.

Autoenplegurako programen bidez, 1996. urtetik 2008ra arte 371 enpresa sortu dira, eta 722 enplegu guztira. Enpresen jarraipenari dagokionez, 2006an, esaterako, 46 sortu ziren, eta 38k jarraitzen dute, eta 2007an 39 jarri ziren martxan, eta 37k segitzen dute gaur egun.

Ekintzaileei errekonozimendua

Tolosaldeko Ekintzailearen 3. Eguna ospatu zuten herenegun ldiak ez jauregian, pasa den urtean

izandako ekintzaileak nolabait errekonozitzeko helburuarekin». Jokin Bildarratz Tolosako alkateak esker hitzak izan zituen zerbitzu honetara enpresa bat sortzerako duten guztientzat: «Benetan eskertu beharra dago bizi dugun egoera ekonomikoan lanpostuak sortu dituzten guztiei».

Ekintzailezari buruz, autoenplegu zerbitzuari buruz, ideiei buruz eta taldekako ikuspegiak bezalako gaien inguruan aritu ziren solasean, besteak beste, herenegun ekitaldian.

Eskualdeko hiru erremontista ariko dira Aldundiaren I. Erremonte Kopan

Kirola » Altuna II.a, Zeberio II.a eta Aizpurua II.a; final-laurdeneko partida bat Iruran jokatu dute ekainaren 13an.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2009 Saria I. Erremonte Kopa abian da. Remonte Berri enpresa eta Bergara, Irura, Azkoitia, Oiarzun, Segura, Zarautz eta Oñatiko Udalaren laguntzarekin burutu dute txapelketa hau, izan ere, herri horietako frontoietan jokatu dituzte partidak. Irurari dagokionez, final-laurden partida jokatu dute ekainaren 13an.

Gipuzkoan, frontoi motzean egiten den lehendabiziko binakoko txapelketa da hau. Igande honetan hasiko da Bergaran, eta ekainaren 27an jokatu dute finala Oñatin. Kanporaketa bidez jokatu dute erremontistek, partida bakarrera, eta «egungo erremontista onenak ariko dira lehian». Tartean eskualdeko hiru: Aizpurua II.a tolosarra, Zeberio II.a el-



Erremontistak eta antolatzaileak, atzoko aurkezpenean. HITZA

duaindarra eta Altuna II.a amezketarra.

Bikoteak zozketa bidez erabaki dituzte, eta horrela geratu dira: Ezkurra-Zubizarreta; Zeberio II-Aizpurua II; Agirresarobe-Urrutia; Matxin III-San Miguel; Altuna II-Agirrezabala; Urriaza-Etxabe; Juaristi-Badiola; eta Uterga-Iriarte.

«Erremontea gipuzkoarrei gerturatzeko helburuz sortu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Saria Erremonte Kopa, eta horregatik jokatu dute frontoi motzean». Halaber, ikuskizun paregabea eskainiko dutela erremontistek azaldu zuten aurkezpenean antolatzaileek.

Eskualdekoen partidak

Igandean hasiko da, beraz, txapelketa Bergaran, eta bertan, Agirresarobe-Urrutia Altuna II-Agirrezabalaren aurka ariko dira. Hurrengo asteburuan, Azkoitian, Zeberio II-Aizpurua II Urriaza-Etxaberen aurka ariko dira.

Iruran, ekainaren 13an, bestalde, Matxin III-San Miguel Uterga-Iriarteren aurka egingo dute.

Laburrak

Asis Sarearen hileroko otoitzaldia, bihar

GIZARTEA » Asis Sarearen zazpigarren otoitzaldi bilkura izango da bihar, Klarisen komentuan, 19:30ean hasita. 100tik gora lagun biltzen dituen ekimenaren helburua, «irekitzea da, herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzen jarraitzea». Informazio gehiago nahi duenak 646 21 48 96 telefono zenbakian edota asis-sare@arantzazu.org helbidean eskura dezake.

San Joan Mus Txapelketa antolatu du Iturrizak

ASIA » Iturriza jubilatua eta pentsiodunen elkarrekin lehenengo San Joan Mus Txapelketa antolatu du hasieraren herriko jaietarako. Ekainaren 22an izango da, 11:00etatik aurrera, eta Harizpe eta Iturriza elkarrekin bakzideek har dezakete parte. Animatzen diren bikoteek Iturriza elkartean (Euskal Herria plaza) eman ahalako dute izena, 10:00etatik 12:00etara bitarte. Izena emateko azken eguna ekainaren 15a izango dela jakinarazi dute. Zortzi erregetarako jokatu dute txapelketa.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxi: 943 670420

Taxi (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Harri Jai handiaren ondorengo egunetan Kultur Asteburua izango da

Bedaio » Kultur Asteburua etzi hasi eta igandera arte izango da; tartean irrati saioa egingo dute jende famatua gonbidatuta.

ERREDAKZIOA

Bedaion bihar bertan Harri Jai ospatuko dute. «Krisi garaian egonikere Bedaionjo eta su ari garurteko ekintza desberdinak antolatzeko», beti bezala auzolanean eta Artubi Kultur elkartearen bidez. Beste behin, «jendea bildu eta ondo igarotzeko ilusioarekin».

Beraz, ohiturari jarraituz Bedaion Harri Jai ospatuko dute. Egun handia da Bedaion biharkoa; antzinako ohiturari jarraituz aurten ere eta egun ditugun eguraldiak ikusirik arrazoi gehiagorekin San Isidro aterako dute «gogotsu prozesioan. Urtero bezala txingor eta harriez uztak babes ditzan eta ea eguzki printzekin beroa etortzen den».

Goizeko 11:00etan Meza Nagusia izango dute eta prozesioa izango da elizaren inguruan. Ondoren hamaiketako izango da Artubi Elkartearen Zeberio eta Mañukorta bertsolariak alaiturik. Trikita doinuak ez dira faltako eta bazkaria egingo dute segidan, bertararen direnek.

Bedaio zein kanpokoek mahaia inguruan bukatuko dute jai egun hau.

Etzi Kultur Asteburua

Baina honen jarraian, etzi, beraz, festa giroarekin jarraituko dute, kasu honetan Asteburu Kulturala baitute. 19:00etan ekingo diote as-



Bazkariaren ondoren Harri Jai hamaiketako egiten dute, eta gero dantzarako aukera izaten da. IMANOL GARCIA

teburu biribilari, Bedaio gidaren aurkezpena egingez.

Bedaio Gida turistikoa azalduko dute bertan. Turismo bulegoa, Tolosako Udala eta Bedaioko auzotarren artean egindakoa da. Bertan Bedaioko baliabide turistikoak berri ematen da.

Larunbatean ludoteka inauguratuko dute, Artubi elkartearen gaineko lokala, haur eta gazteen zoko egokia izango dena, hain zuzen ere. Atondu egin dute, egokitu horretarako. «Ordenadorea eta Internet jada martxan daudela, inaugurazioa egitea apropos ikusi dugu».

Irrati saio bat prestatu dute

Horretarako «irratsaio bat egingo dugu, Txolarre irrati zuzenean Bedaio ariko delarik. Honen baitan «kirol eta kultura alorreko

personaia ezagunei solasaldi-galdeketa bat egingo diegu».

Solasaldian parte hartuko dute, beste batzuen artean Abel Barriolak, Aimar Irigoien harri-jasotzaileak eta Jose Manuel Goikoetxea *Goikok*, aktore eta bikoizleak. Artubik egiten duen moduan, sorpresa gehiago dituzte prestatuta.

Gazte ospetsu hauek haur eta gazteek prestatutako galderei erantzuten saiatuko dira. Hitzaldian, esan bezala, Txolarre irrati eta *Balerditik mundura* bloga egongo dira grabaketa lanak egiten. Jendeak parte har dezake irratien bidez ere.

Bi orduko saioa izango da gutxi, gorabehera. Ondoren afaria egingo da, bertara hurbilduko direnentzat, giroa ordu txikitara eramanez.

Igandean, maiatzeko azken

egunean 11:00etan hasita txango bat prestatu dute. Oraingoan, Bedaio eta Lizartza mugetatik barrena ibiliko dira.

Lizartza alderako ibilaldia

Sagardotegitik aterako dira, ondoren, oinez Zumizketa baserritik ateraz. Zelaietatik eta pagadietatik barrena ordu bete egin ondoren, Arraunetara iritxiko dira, beste ordu beteren barruan, Gaztelu eta Oreatik barrena Lizartzan sartzeko. Hemen, Pagoluze izeneko tokian aurkituko dituzte enborren 4 metro eta erdiko perimetroa dituzten pagoak eta baita Leize Gaiztok izeneko harkaitz zuloak ere.

«Bazkaltzeko ordua gertu dugularik, Bedaion sartuko garaberrero, eta Pagohaundiko trikuharrira abiatuko gara». Bertan egingo du

» EGITARAUA

Maiatzak 28, bihar

■ 11:00. Meza Nagusia eta prozesioa.

■ **Ondoren.** Hamaiketako Artubi Elkartearen Zeberio eta Mañukorta bertsolariak.

■ 13:00. Trikilariek saioa egingo dute, Bedaion lege den bezala dantza sueltoko egiteko.

■ 14:30. Bazkari Herrikoa (Bedaioko zein Bedaioko ez direnentzako) Artubi Elkartearen.

■ 17:30. Bertsolariaren bigarren saioa. Trikiti piezak ere tartean izango dira.

■ 20:30. Afari herrikoa: Bedaioko zein Bedaioko ez direnentzako.

Maiatzak 29, etzi

■ 19:00. Bedaioko gidaren aurkezpena.

Maiatzak 30, larunbata

■ 18:00-20:00. Ludotekaren inaugurazioa eta hitzaldia. Artubi Elkartearen gainean dagoen lokala haur eta gazteen liburutegi bezala atondu dute. Txolarre irrati zuzenean Bedaio ariko da irratsaioa egiten. Solasaldian parte hartuko dutenak: Barriola, Irigoien eta Goikok bikoizleak. Tartean, sorpresak ere izango dira.

■ **Ondoren.** Afaria.

Maiatzak 31, igandea

■ 11:00. Txangoa Bedaio eta Lizartza mugetatik barrena. ditugu enborren 4.5 metro duen perimetroa duten pagoak, eta bertan baita ere Leize Gaiztok izeneko harkaitz zuloak.

bakoitzak etxetik eramandako ogitartekoekin bazkaria.

Azkenik, Jazkura jaitzi eta kotxe itzuliko dira hasierako abia-puntura, sagardotegira, alegia. Aurten ere, jende askorentzako ekitaldiak prestatu dituzte.

II. Paella jatera joateko azken aukera, bihar

Albiztur » Larunbateko bazkariaren ondoren 'Gezurrezko printzea' antzerkia izango da Edurne Agirrezabalarekin.

NEREA URBIZU

Datorren larunbatean Albiztur II. Paella jatea izango da. Bertara joateko txartelak salgai daude, baina bihar arte. Kultur Astea antolatu dutenek 200 lagunentzako prestatuko dute frontoia eta jada 5 euroan dauden txartel gutxi gelditzen dira. Herriko Ostatuan edo udaletxean erosi behar dira.

Karmen Otaegirekin batera Arkaitz elkarteak zuzendaritzako ariko dira arrosa prestatzen. 14:00etan hasiko da.



Edurne Agirrezabala aktorea izango da Albiztur. E. ARRIETA-OARSOALDEKO HITZA

18:00etan, berriz, *Gezurrezko printzea* antzerkia ikusgai izango da udaletxeko areto nagusian. Bazkariaketa bat da eta horren bidez, senarraren bizitzaren mende da-

goen emakume batek bikote-bizitzan izandako bizipenak kontatzen ditu. Guztia, Edurne Agirrezabalak egingo du, 50 minutu inguruz.



IDIAZABALGO GAZTELEKURAKO HEZITZAILE KONTRATAZIOA

Idiazabalgo Udalak gaztelekurako hezitzaile bat kontratatuko du 2009/2010 ikasturterako, 2009ko irailaren 14etik 2010ko ekainaren 13ra. Lanaldia astean 14 ordutakoa izango da, 10 ordu larunbata eta igandean banaturik eta beste 4ak astean zehar aukeraturiko egun batean. Aste bukatuko ordutegia arratsaldean izango da.

Derriagorrezko baldintzak:
Aisialdiko begirale titulua izatea
18 urte beteta izatea
EGA izatea

Lan eskaintzan interesatuak daudenek Idiazabalgo Udalean izena eman beharko dute eta CV entregatu, maiatzaren 29a baino lehen.

Harremanetarako:
Helbidea: Plaza Nagusia 1 • Telefonoa: 943187100
Helbide elektronikoa: kultura@idiazabal.info
Ordutegia: 09:00-14:00



Kulturunearen atzeko aldean egokituko dute musika eskola eta lehenengo lana fatxada aldatzea izango da. I. GARCIA

Musika eskola egokituko da Kulturunean Madrildik jasotako diru laguntzekin

Irura » Gaztekuaren atzean egokituko dute musika eskola; lanek bost hilabete inguru iraungo dutela espero dute.

IMANOL GARCIA

Zapatero Plana bezala ezaguna den diru laguntzarekin Irurako Udalak musika eskolaren proiektua gauzatzeko Kulturunea dagoen eraikinean. Guztira 205.000 euro inguruko aurrekontua du obrak eta aste honetan hasi dira lanean. Lehenengo lana fatxada aldatzea izango da. Proyectos y Obras Juín, Electricidad Soleta Ingeniería Sular enpresak sortutako aldi baterako enpresak egingo ditu lanak eta bost hilabetetan amaitu dituztela espero da.

Diru laguntza jasotzeko baldintza batzuk bete behar dira. Horietako bat da obra aurten hasi eta

amaitu behar dela eta aurtengo aurrekontuetan ezin zela sartuta egon. Beste baldintzetako bat herriko langabeturen bat kontratatu behar dela da. Hain justu, bi langabetu kontratatuko dituzte lanak egiteko. Baldintza horiek ikusita, Irurako Udalak Kulturunea dagoen eraikinean musika eskola egokitzea erabaki zuten.

Marimi Ugalde alkateak azaldu duenez, «egun 75 ikasle ditu Loatzeko musika eskolak Iruran eta egungo Kulturunean getetan banatzen dira». Kulturunean gela bat dago musika eskolarako baina ez da nahikoa dauden beharrentzako. «Beraz, beharrezkoa zen handitzea eta nola eraikin horretan bagegoen aukera handitzeko, obra hau egitea aukeratu dugu», gaineratu du Ugaldek.

Egun Kulturunean dagoen musikarentzako gela Gaztekuaren bateratuko da, Gaztelekua handitzeko. Musika eskola berria

Gaztekuaren atzean egongo da eta sarrera bat egingo da egungo musika eskolako gelaren ondoan. Guztira 145 metro karratu izango ditu. Espazio handi bat izango du L formakoa, intsonorizaturako bigelaxto eta gela bat bulego moduan. Espazio handi hori moldagarria izango da tabike batzuen bitartez. Bertan ekitaldiak egiteko aukera ere izango da, hau da, herriko areto bezala erabilitzeko.

Egokituko diren gela eta espazioez gain, beste gela bat ere aprobetxatu ahal izango dute musika eskolakoek. Izan ere, osasun zentroa egiterakoan pediarentzako gela bat egokitu zen, baina egun hutsik dago Osakidetzak ez baitu zerbitzu hori Iruran ematea onartu. Horrela, musika eskolako espazio nagusira ate bate irekiko da gela horretatik eta hau ere erabili ahalko da. Horrela, 145 metro koadro berriez gain, beste 25 metro koadro ere erabilgarri izango dituzte.

Nafarroa Euskal Estatu delarik aldarrikatuko dute Ausa Gaztelun igandean

ERREDAKZIOA

Goierriko eta Tolosaldeko nafarrek ekitaldia egingo dute Ausa Gaztelun igandean honetan, hilak 31, Nafarroa Euskal Estatu delarik aldarrikatzeko. Egitarauari 10:00etan ekingo diote Larraitzetik eta 11:30ean Ausa Gazteluko tontorrean bilduko dira han ekitaldia egiteko.

Ekitaldiak ordu erdi iraungo du. Gazteluan bandera jarriko dute eta Nafarroako Gorteen ereserkiak joko dute txistuarekin. Ondoren komunikatua irakurri eta berotsoko abestuko dituzte. Ekitaldia eta

gero, Larraitzen bilduko dira 13:30ak inguruan eta kalejira egingo dute txistulariekin. Bukatzeko 14:30ean bazkaria egingo dute Larraitzen bertan. Bazkaltzen gelditu nahi duenak gaur du azken eguna izena emateko. Horretarako 607111202 telefono zenbakira deitu behar da.

Ekitaldiaren antolatzaileek zehazten dutenez, XII. mendean jada azaltzen da Ausa Gaztelu dokumentuetan eta bere zeregina «Nafarroa zen eskualde honetako aktibitate ekonomikoa zaintzea zen».

Laburrak

Ikastaroak Abraham Olanok kiroldegian uztaileko

ANOETA • Abraham Olanok kiroldegian uztailean zehar egiteko ikastaroak antolatuko dituzte. 16 urte baino gehiagokoentzat aerobik, pilates, hirugarren adinekoentzat gimnasia, multifitness, yoga, cycling eta patinajea egiteko aukera izango da. 5 eta 12 urte artekoek dantzatza tailerra, kirol hastapena eta kirol ludoteka egiteko aukera izango dute. Interesatuak izena kiroldegian bertan eman dezakete ekainaren 20a baino lehen.

Senidetze Eguneko bertso afarirako txartelak salgai

ZIZURKIL • El Salvadorreko Segundo Montes komunitatea anaieratuta dago Aitzondo bailarako lau herriekin: Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkil. Larunbat honetan, hilak 30, lehenengo Senidetze Eguna antolatuko dute Zizurkilen. Egitarauaren baitan bertso afaria antolatuko dute Adoni Egaña eta Amets Arzallusekin Atxulondo jatetxean, 21:00etan. Txartelak salgai daude 22 eurotan jatetxean bertan. Txartel bakoitzetik bi euro Segundo Monteseko haurtzaindegietan baratzak egiteko diru laguntza izango da.

Promoziozko bidaia Santillana del Mar herrira

ANOETA • Alkartasuna biltokitik azaldu dutenez promoziozko bidaia egingo dute Santillana del Mar (Espainia) herrira ekainaren 3an. Gosaria eta bazkaria emango diete bidaia-erietan eta promoziozko hitzaldia izango dute. Arratsaldean zoo batera joango dira. Bidaia-eraren kostua guztira 14 eurokoa da eta edozeinek eman dezake izena. Biltokian bertan eman daiteke izena, aste guztian zehar, 18:30etik 20:30era.

Behar-Zanakor urteko festa ekainaren 6an eta 7an

VILLABONA • Behar-Zana elkarteak urteko festa ospatuko du ekainaren 6an eta 7an. Elkartetik jakinarazi dutenez, irekita daude ekainaren 6an egingo den afarirako izena emateko zerrendak. Bestalde, elkartetik bazkide guztiei animatzen diete danborradan parte hartzea eta horretarako izena eman dezate eta ekainaren 3ra arte zabalik izango diren zerrendetan. Danborradarako entsegua egingo da ekainaren 4an. Behar-Zanatik azaldu dutenez, danborradarako izena ematen dutenek parte hartu behar dute entseguan.

digital
h
@

Ostiralean, maiatzak 29, 18:00etan
INAKI IRAZABALBEITIA

Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioko Euskal Herriko zerrendaburua


Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info



webgunean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kirola » Bi urtez behin egiten da proba; izena eman daiteke jadanik 'www.aralarkoadiskideak.org' helbidean.

ERREDAKZIOA

2:07:14. Denbora hau oinarri hartuta berreskuratu zuten Aralarko Adiskideak mendi elkarteko kideek Ernioko lasterketa. Joxe Mari Urteaga zenak 1944eko irailaren 11n jarri zuela marka hau. Juan Joxe anaia, Periko eta Julian Elo-segi, eta Esteban Iguaran izan ziren denbora hartzaileak.

Duela bi urte, 2007an, antolatu zuten azkenekoz Aralarko Adiskideak mendi lasterketa hau eta heldu den ekainaren 13an, larunbatarekin, egingo dute berriz. Korrikalariak Tolosako Triangulotik abiatuko dira 10:00etan, Ernioko gurutzeraino. Joan-etorria egin beharko dute. 20 kilometroko luzera du ibilbideak (10 kilometro goraka eta 10 beheraka) eta 1.000 metroko desnibela.

Elkartetik izena emateko aukera zabaldu dute dagoeneko. www.aralarkoadiskideak.org helbidean egin daiteke edota egunean bertan, 15 euro ordainduta.

Urtez urte, markak hobetuz joan dira parte-hartzaileak

Lan gogorra osatzen dute parte-hartzaileak. Azken edizioan, esaterako, 131 korrikalari aritu ziren, horietatik 9 emakumeak. Aurten ere partaidetza altua izatea espero dute antolatzaileek.

Aralarko Adiskideek Ernioko lasterketa antolatu dute



Proba iragartzen duen kartela. HITZA

Urtez urte denbora gutxituz joan dira partaideak, «gero eta gehiago prestatzen baitute euren burua lasterketa honetan parte hartzeko».

Adibide bezala, Aralarko Adiskideek azken urteetan eman diren markarik onenak azaldu nahi izan dituzte. Gizonezkoetan, esaterako, 1944an Joxe Mari Arteagak eginiko marka asko jaitsi dute; 2007an Fernando Etxegaraik 1:24:44ko denbora lortu zuen. Bi urte lehenago Etxegaraik berak 1:26:52ko denbora egin zuen.

» HAINBAT DATU

- **Proba.** Ernioko mendi lasterketa.
- **Eguna.** Ekainak 13, larunbata, 10:00etan.
- **Ibilbidea.** 20 kilometroko luzera du (10 gora eta 10 behera) eta 1.000 metroko desnibela. Tolosako Triangulotik abiatuko da, Ernioraino eta buelta.
- **Izen-ematea.** www.aralarkoadiskideak.org.
- **Prezioa.** 15 euro.

Emakumezkoen kasuan, berriz, markarik onena Nerea Amilibiak ezarri zuen azken edizioan, 2007an, 1:48:09ko denbora egin baitzuen.



Orixeko neska infantilak Gipuzkoako txapelketa

TOLOSA » Orixe institutuko infantil neskek Gipuzkoako areto futbol Txapelketa irabazi zuten pasa den larunbatean, Hirukide taldearen aurka jokaturik finalean. Ibarako kiroldegian izandako partidari 6 eta 2ko emaitzarekin amaitu zuten. Hala, Orixe neskek, Gipuzkoako ordezkariak izango dira datorren asteburuan Gazteizen jokatu duten Euskadiko txapelketan. Bestalde, senior mailan ere, Orixeko neskek Gipuzkoako finala jokatu dute datorren asteburuan, finalerdietan Idiazabali 2 eta 0 irabazi ondoren. Finalean, Alitzako nesken aurka ariko dira. HITZA

Kultur Astea izango da bihartik igandera arte, Belauntzan

ERREDAKZIOA

Beste herri askotan bezalaxe, Belauntzan ere ostegun honetan hasi eta igandean amaituko den Kultur Astea antolatu dute.

Egun hauetan zehar ipuin kontalariak, mendiari buruzko proiektzio eta hitzaldiak, bertso afaria eta

Belauntzako inguruak ezagutzeko ibilaldia antolatu dituzte, besteak beste.

Larunbateko Bertso Afarirako txartelak erosteko azken eguna osteguna izango da eta taberna-jatetxean eskuratu daitezke 30 euro-rengatik.

» EGITARAUA

Hilak 28, osteguna

■ **18:30.** Idoia Sanchez ipuin kontalari tolosarraren saioa taberna-jatetxean.

Hilak 29, ostirala

■ **19:00.** Mendiari buruzko Hima-laiara Familiarekin hitzaldia eskainiko du Josu Bereziartuak Kultur Etxean. Ikus-entzunezkoa eskainiko du lehenik eta hitzaldia izango da ondoren.

Hilak 30, larunbata

■ **22:00.** Bertso Afaria izango da Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor

Mendiluzare bertsolariekin herriko taberna-jatetxean. Txartelak tabernan bertan erosi daitezke osteguna bitarte 30 euroren truke.

Hilak 31, igandea

■ **09:30.** Belauntza inguruja ezagutzeko mendi ibilaldia antolatu dute. Udaletxetik irtengo dira parte hartzaileak eta Larte medira igoko dira lehenik, bertan ardoa eta salda banatuko dute guztien artean. Ondoren Gazteluara joan dira Belauntzara itzuli aurretik.

Euskarazko lehen sukaldaritza bilduma!



PINTXOAK

- A Patxo nigro
- Alu
- Andra Mari
- Burgara
- Borda Berrri
- Casa Vergara
- El Lagar
- Hidalgo 56
- La Cuchara de San Telmo
- Mi Cafina
- Torbillo
- Zorito

berriaren

harpidedun eta irakurleek

erdi prezioan: 12€

Bete ezazu maiatzaren 20tik 31 bitartean BERRIAN argitaratuko den erreserba kupoa eta utzi zure kioskoan maiatzaren 31 baino lehen. Bi asteren buruan kiosko berean jasoko duzu liburua.

Laguntzailea:

FAGOR

www.fagor.com

Aukera ezazu, BIZI euskaraz

berria

Astelehenean amaitu ziren Ibarrrako Kultura eta Gazteria sailaren 'Munduan zehar bidaiatuz' jardunaldiak; ikus-entzunezko zein hitzaldi ugari izan dituzte; azkenari esker, Jordanian bidaiatzeko aukera izan zen.

Arabiako Lawrenceen arrastoien atzetik

REBEKA CALVO

Hiru asteetako bidaia izan zen Jordanian barrena. Petra Nebo mendi sakratutik banatzen dituen 300 bat kilometroek beduinoen bizimodu «gogorra» ezagutzeko aukera eman zioten Angel Cuerdo bidaiari tolosarrari 2004. urtean. Orduztik, besteren artean, «Ekialde Hurbileko gatazkak hobeto ulertzeko» gakoak zabaltzen ari da Euskal Herrian zehar eskaintzen duen bideo emanaldietan.

Astelehenean Ibarrrako txanda izan zen; Cuerdo izan zen azken asteetan Kultur Etxean izan den *Munduan zehar bidaiatuz* bidaia jardunaldiei bukaera emateko arduraria izan zuena, eta berak *Jordania: Arabiako Lawrence bidetik* ikus-entzunezkoa eskaini zuen.

Zaldi zaletasuna eta bidaia

«Bidaiatzea duzu gustuko ala zaldi zalea zara?», galdetu zuen Cuerdo hara iritsitako lehenari, izan ere, lan honekin Jordanian eta Ekialde Hurbilaren historia ezagutu ahal da, baina baita ere zaldi zeharkaldi luzea egiteko hainbat gako ere. «Lanak hiru ardatz ditu: zaldi zeharkaldia, Ekialde Hurbileko gatazka eta Arabiako Lawrence. Hiruak elkarlotu ditut». Bidaiariaren abiapuntua Arabiako Lawrence erengano mirespena izan zen: «Arabiako Lawrence *Jakituraren zaipi zutabeak* liburua hartu eta berak egindako bidaia egin nahi nuen. Arabiako Lawrence Che Gevararekin aldera daiteke. Arabiar Erresuma Batua egin nahi zuen, Damasko hiruburu izango zuena, izan ere herrialde hauetan guztietan tribuak zeuden, euren arteko batasun garbirik gabe. Herrialdeak Turkiaren jabe gopean zeuden, baina mende hasierako interes ekonomikoek, petroleo nahia zehazki, guztiz eraldatu zuen orduko egoera.



Angel Cuerdo ikus-entzunezkoaren inguruko argibideak eman zituen. R. CALVO

Arabiako Lawrence tribuak elkartzealortu zuten, Turkiaren kontra egin zuten, baina azkenean matxinada guztia hutsean geratu zen eta Ekialde Ertaina Britainia Handiaren eta Frantziaren esku geratu zen, Arabiako Lawrence traizionatuz. 1935. urtean desegin zen arabiarren askatasun ametsa».

Traizioz eta guduez hornitutako Ekialde Ertaineko historiak bere horretan jarraitzen duela ere esan zuen Cuerdo, izan ere, azken urteetan ere herrialde arabiarren kontrako erasoak biderkatu dira mendebaldeko lurraldeetatik.

Erasoak eraso bidaiariak Jordania barrena egindako bidean topatutako beduinoek «oso harrera ona» egin zioten. «Ez dute inongo gorrotorik, egunen batean dituzten arazoak konponduko direlaotan daude eta egunerokoa bizitzen dute. Herrialde haietatik konunikabideen bidez iristen zaiguna eta nik jasotako abegitasunaren arteko kontraesanaz ere jabetu nintzen», argitu zuen. Egoera gogorra bizi dute, «lur haiek ez dira bizitzeko egokiak, ia urik eta janaririk gabe...», gaineratu zuen. Zal-

diarekin ere arazoak izan zituen Cuerdo horregatik, «bukarain zaldia oso gaizki zegoen, kilometro asko izan ziren ia ezer jan eta edan gabe».

Beduinoen eguneroko bizitza

Jordania: Arabiako Lawrence bidetik ikus-entzunezkoarekin eta honekin batera eskaintzen dituen hitzaldiekin Ekialde Hurbileko egungo egoera eta bertako beduinoen «eguneroko bizitzaren» berri eman nahi du Cuerdo hemen, izan ere «ematen diguten informazioak ez dauka zerikusirik hango benetako bizitzarekin».

Tolosarrak, gainera, eskarmen-tu handia du bidaien munduan, Jordaniatz gain, besteak beste, Islandia, Mongolia, Mekong edo Hego Ameriketako hainbat herrietan barrena ere ibilia da eta.

«Nire bidaia gehienak herri ez aberatsen izan dira eta geroz eta jende umilagoa topatu orduan eta eskuzabalagoak direla konturatu naiz, gure mundu kapitalistan konfidantza galtzen ari garela dirudi», aipatu zuen hitzaldia amaitzeko.

Laburrak

Herri Batzarra egingo dute bihar 19:00etan

IBARRA ● Ibarrrako ezker abertzaleak herri batzarra egingo du bihar, hilak 28, 19:00etan Benito Izagirre kultur etxean. Bertan, Europako legebiltzarra osatzeko datorren ekainaren 7an ospatuko diren hauteskundeak izango dituzte hizpide, nagusiki. Ibarrrako ezker abertzaleak ibartar guztiei herri batzarrera joateko gonbita luzatzen die.

II. Zaldi Eguneko bazkarirako tiketak salgai

LEABURU ● Leaburun ekainaren 6an ospatuko duten II. Zaldi Egunerako bazkarirako tiketak 25 euroren-gatik eros daitezke ekainaren 4a bitarte Leaburuko Ostatuan, Trako Astigarragan, Leitzako Adur tabornera eta Iruztuneko Albeitara. Menua hau izango da: *cabra-roca* pastela, paella, birbilkia edo redondo barazkitxoekin eta postrea.

Dantzari Txiki eta Alurr Egun arrakastatsua

Ibarra » Antolatzaileek larunbatean jende asko hartu zuela parte eta erantzuna ere «handia» izan zela diote.

ERREDAKZIOA

Alurr Dantza Taldeak eskerrak eman nahi dizkie pasa den larunbatean Ibarrran Dantzari Txiki eta Alurr Egunean parte hartu zuten guztiei «bai goizeko zein arratsaldeko ekitaldietan». Era berean, laguntzaile guztiei, «aurretik laguntzen izan zirenei, eta baita beti Alururen alde aritzen diren guztiei ere» euren esker ona azaldu nahi diete. «Halaber, mila esker Loatzo Musi-

ka Eskolako kideei gurekin izateagatik. Urte osoan izan dira dantzarako piezak prestatzen, gero Dantzari Txiki eta Alurr Egunean jotzeko», gaineratu du taldeak.

Parte-hartzea ikusita Alurrek «balorazio oso positiboa» egin du, «jendearen aldetik erantzuna handia izan baitzen eta parte-hartzea ere». «Eguraldi ederra izan genuen eta umeek disfrutatu eta gozatu egin zuten dantza egiten. Iluntzeko erromeria gaueko 22:30ak arte luzatu zen azkenik, Dantzari Txiki eta Alurr Egunean egon zen giro politaren islada. Hori dena ikusita, hurrengo urtean berriro elkar ikusiko dugu Dantzari Txiki eta Alurr Egunean», argitu dute Alurreko kideek.



Alurr Dantza Taldeko ikasleak emanaldia eskaini zuten arratsaldean. R. CALVO

Hilberria

ANTONIO ETXEBERRIA SUKIA

OSABA

(Arantxa Arrese Erauskinen alarguna)

Herenegun hil zen, 82 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere anima zuzendaria: Jesus Javier Dominguez seme-alabak: Milla eta Gregorio Jauregi, Makoies eta Pello Zubiria; bilobak: Ekhi eta Itsaso; anaia: Aureliano (†), Prontxio (†), Joxe (†) eta Manuel (†); koinatu-koinatak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzete LA GUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA FE parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

ZALDIBIA
2009ko
maiatzaren 27a

Hilbidetza: Azitia Berri, 1-2. ez. Oharra: gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian dago. Errosario santua 18:45ean errezatuko da elizan.

ANTONIO ETXEBERRIA SUKIA

-Goian bego-

Milla Etxeberria irakaslearen aita.



Altzoko Imaz Bertsolaria eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak

ALTZO
2009ko
maiatzaren 27a

ANTONIO ETXEBERRIA SUKIA

-Goian bego-

Lore bat bezala joan zara udaberria heltean gure mendietan egongo zara larre goxo artean.

Gailurrerantz Mendi Elkarte



ZALDIBIA
2009ko
maiatzaren 27a



Hilabeteko azken ostiralean leitzarrek Lopenerko iturrian egiten dute elkarretaratzea 20:00etan. J. ASTIBIA

Tolosaldean eta Leitzaldean Jon Anza presente egongo da azken ostiralean

Politika » Etxerateg elkarretaratzeak egingo ditu ohiko herrietan eta orduetan etzi, hilabeteko azken ostiralean.

ASIER IMAZ

Etxerateg hilabeteko azken ostiralean elkarretaratzeak egingo ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan.

Leaburu-Txaraman bihar 20:00etan elkartuko dira, hilabeteko azken ostegunean.

Euskal Errepresaliatu Politikoen Senide eta Lagunek, Etxerateg mobilizazioen amaieran bertan bildutako maiatzari dagokion irakurketa plazaratuko dute, egun «738 euskal preso politiko» aurkitzen direla gogoratuz: «Hauetatik 153 frantziar estatuko espetxeetan sakabanatuak daude eta 585 berriz espainiar estatuko espetxeetan. Lau euskal herritar dira etxean preso dituztenak».

Jon Anzaren desagerketa

Hilabete honetan Jon Anza donostiarraren egoera salatuko dute, «bere desagerketaren inguruan benetako kezka» gizarteratuz: «Jon Anza preso ohia eta Lapurdin bizi den euskal iheslari politikoa desagertua dago. Jon Tolosara (Okzitania) zihonan tren batean sartu zen Baionako geltokian. Geroztik ez dago bere inguruko inolako

berririk. Abokatuak salaketa jarri zuten, ez baitago inolako hipotesirik baztertzetik, horretaz gain frantziar gobernuari desagerketa hau lehen bailehen argitzeko deia egin zaiou».

Anzak gaur egun 47 urte ditu, hauetatik 21 espetxean igaroak dira. Hainbat ekitaldi egin dira azken asteetan bere desagerketa salatuzko, bilaketa lanak barne. Honen berri ere zabalduko dute azken ostiralean gure eskualdeetako herrietan: «Asteburuan manifestazioa burutu zen Hendaian. Arratsaldean euskal militante politikoa aurkitzeko brigada herritarrek antolatuta ziren. Baiona eta Tolosa arteko tren geltokietan eta inguruko txokoetan kartelak jarri zituzten eta eskuorriak banatu Jonen aurpegiarekin. Hauetan, bere inguruan egon daitekeen informazio guztia jasotzeko telefono zenbaki bat agertzen zen».

Preso eta iheslarien argazkiak

Bihar eta etzi egingo diren mobilizazioen amaieran Anzaren desagerketarekin batera, «Euskal Preso Politikoen argazkien aurka ematen ari den errepresioaren aurrean argazki gehiagorekin erantzuteko deia» egingo dute.

Preso eta iheslarien inguruko mugimenduek egoera honen aurrean elkartasun mezua zabalduko dute: «Euskal Preso Politikoen argazkiak ezabatzearekin espetxe politikaren errealitate ankerra

ezabatu nahi dutela salatu dugu. Minbizia izan arren espetxean preso dituzte herritarrek, biziarrek eta sakabanaketak 15 hilean behin senide bat hiltzen du errepideetan, eta urtean behin preso bat edo preso ohi bat hiltzen du. Egoera larria da espetxeetan ematen ari dena. Muturreko egoerak ugaritzen ari dira eta honen guztiaren lekukotza ematen digute euskal preso politikoen argazkiek. Espetxeetako egoera ezkutatu nahi dute eta horregatik ezabatu nahi dituzte presoaren argazkiak. Elkartasuna ezabatu nahi dute eta horregatik argazkiak delitu bilakatzeko ari dira».

Azkenik, «elkartasun mobilizazio» desberdinetan parte hartzeko deia luzatuko dute.


» ELKARRETARATZEAK

Maiatzak 28, bihar

■ Leaburu-Txarama. 20:00etan.

Maiatzak 29, etzi

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketa. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leiza. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.



Arbizuren aurka bezala, Uharteren aurka ere etxean jokatu du Leitzak. I.L.

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan multzoko lehenak

Leitza » Ligaxkako bigarren itzuliri lehen postuan ekingo dio herriko pilota taldeak; asteburuan Amazabalen jokatu du.

A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Pilota Txapelketan multzoko lehen postua lortu zuen asteburuan Leitzak, atsedean jardunaldia eduki zuen arren.

Bigarren itzulia asteburuan

Uharterekin 2-2 berdindu zuten leitzarrek lehen jardunaldian. Bigarrenengoan 4-0 irabazi zioten Arbizuri.

Asteburu honetan Uhartek eta Arbizuk jokatu zuten elkarren aurka. Iruinarek 3-1 irabazi zuten arren, multzoko sailkapen oroko-

rean, emaitza honi esker Leitza lehen postuan bakarrik gelditu da.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar joaneko partidak bakarrik jokatu direla oraindik. Ligaxkaren itzulerako norgehiagokak asteburu honetan hasiko dira.

Bigarren itzuliko lehen jardunaldian berriro ere Uharteren aurka ariko dira leitzarrek, nahiz eta oraingo honetan etxean jokatu duten. Lehen jardunaldiko binakako berdinketa euren aldera eramanen saiatuko dira; Uharteri irabaztea lortzen baldin badute multzoko lehen postua ia ziurtatua edukiko lukete, honek finalerdietarako txartela lortzeasana nahiko luke.

Beste bi multzoei dagokienez, Burlata eta Iruñea agertzen dira lehen postuetan. Leitzarekin batera, hauek ere finalerdietan egoteko aukera handiak dituzte.

Leitzan Ima Zestauren hitzaldia izango da gaur

A. IMAZ

XXXI. Kultur Astea azken txanpan sartzen ari da, hilaren azken egunean, igandean, amaituko baita Artisau Azokarekin.

Gaur 19:00etan hitzaldia

Ima Zestauk hitzaldia eskainiko du gaur 19:00etan Aurreran, *Haurren adopzioa* izango da bertan az-

tertuko den gaia. Ondoren jolasaldi irekia egongo da.

Bihar eta etzi

Hilaren 28an, bihar, Floren Aoziek hitzaldia eskainiko du 20:00etan Aurreran: *1512. urteko Nafarroaren konkista*. Etzi berriz Torrean antzerkia eta heavy kontzertua egongo dira 20:00etatik aurrera.

@ Papereko edizioa. Sartu gure webgunearen *Papereko edizioa* atalean eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko albiste guztiak aurkituko dituzu. Horretaz gain herriren baten inguruan argitaratu diren albiste guztiak irakurtzeko, herriaren gainean klik egitea nahikoa da:
www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu: 616 54 29 60.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

- **Ibarra.** Santiago Goñi Zabala testamenduen araudiaz ariko da Bizi Nahi jubilatutako elkartearen 17:00etan.
- **Tolosa.** Amalur bidai jardunaldien barruan, Jon Arretzek Amazoniaz hitz egingo du Kultur Etxean 20:00etan.

Deialdiak

- **Abaltzisketa.** *Eneko eta Miyukiren Hego Amerika tandemean proiektioa* Kultur Etxean 20:00etan.
- **Villabona.** Behar Zanak 63. urteurrenean, larunbatean 20:00etan afora, 23:00etan danborrada Incansables txarangarekin. Parte hartzeko ekainaren 3ra arte eman daiteke izena).

Kultur asteak

- **Leitza.** 19:00etan Aurreran Ima Zestauren hitzaldia: *Haurren adopzioa*. Ondoren, jolasaldi irekia.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

Gorosabel Zaharreko txokoak


Tolosa » Aitzol Udal Euskaltegiak argazki erakusketa antolatu du eta eraikineko giroak eta lekuak islatu dituzte.

NEREA URBIZU

Ekainaren 19ra arte, Gorosabel Zaharra eraikineko goiko solairuan **19:00 Gorosabel Zaharra** argazki erakusketa jarri dute. Aitzol Udal Euskaltegiaren ekimena da.

Aitzol Udal Euskaltegiak urtean zehar hitzaldiak, tailerrak, zein ikastaroak antolatzen ditu. Oraingoan argazki erakusketa prestatu du. Euskara ikasten ari den Iñigo Royo argazkilaria argazki ikastaroko ikasleek hartu dute parte argazkiak egiten. Irudietan Gorosabel Zaharraren barruko txokoak eta jarduerak islatu nahi izan dituzte. Egun osoan zehar ikus daitezke.

Egun batez argazkilaritza ikasten ari diren ikasleak Gorosabel Zaharrera joan ziren, 19:00etan eta bertan orduan zegoen giroko argazkiak atera zituzten. Hori ikus daiteke erakusketan. Guztira 15 bat argazki daude.



Mikel Uzkudunek, Iñigo Royok eta Miren Atxagak aurkeztu zuten erakusketa: beheran, argazkietako batzuk. Argazkiak argazki ikastaroko ikasleak dira. Aukeraketa egin zuten eta ikusgai 15 bat daude. N. URBIZU



harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako otordua




Aburuza Sagardotegian

Olatza Baserria • Aduna
Tel.: 943 692 452 - Faxa: 943 692 153
aburuza@sidrasaburuza.com

② 2 sarrera kontzerturako

Dulce Pontes

Ekainak 6 • Larunbata
20:30ean • Tolosako Leidorren



③ 3 diskoz osaturiko sorta

baga-biga
disketxearen eskutik



④ HITZAKo materiala



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info